

Errealitatearen lokatzen

Ikusaskun Rekalde Netflix Euskaraz taldeko kidearen hitzak dira: «Azkeneko urteotan, asko aldatu dira ikus-entzunezkoen kontsumo ohiturak. Telebista tradizionalaren kontsumoa asko jaisten ari dela erakusten dute datuek. Al-diz, ordainpeko plataformen harpidetzak %40 hazi dira azken bost urteotan, eta euskaldunon hamarretik seik edaten dugu itu-

rrori horretatik. Horien artean, Netflix da merkatu kuotarik handiena duena. Plataforma horietan, ez dago ia euskarazko edukien eskaintzarik. Netflixeko katalogoan lau film baino ez ditugu euskaraz, eta telesailik ez dago bat bera ere. Euskarak bizi gura badu, ikus-entzunezkoen alorrean ere egun daukan baino presentzia handiagoa izan behar du».



EKOGRAFIAK
Juan Luis Zabala

Nola ez egin bat Rekaldek esandako guztiarekin eta taldearen eskariekin? Ados agertu dira behintzat Euskalgintzaren Kontseilua, Topagunea, Uema, Disney Euskaraz, Tinko euskara elkarteak, Ibaia (Ikus-entzunezkoen Euskal Ekoizle Burujabeen Elkarteak), Napar (Nafarroako ekoizle-en elkarteak), Hekimen euskal hedabideen elkarteak, Euskal Hedabideen Behategia, UEU Udako

Euskal Unibertsitatea, EHE Euskal Herrian Euskaraz, Bieuse bi-koiztaile euskaldunen elkarteak, AEK, Game Erauntsia eta *Euskal Encodings* webgunea.

Ziur nago laster sartuko direla eskariaren aldekoen zerrenda horretan EIE Euskal Idazleen Elkarteak, EIZIE Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarteak eta Galtzagorri ere –Euskaltzaindiarekin berearekin batera, jakina–, Netflix Euskaraz, Disney Euskaraz eta bide horretatik sor daitezkeen elkarteen eskariak zuzenean lotuta baitaude, euskarazko ikus-entzunezkoen garapenearekin ez ezik, euskal literaturaren –eta euskararen be-

raren– osasunarekin ere. Euskal Herriko erakunde politiko nagusiek ere ezin diote muzin egin arlo horretan duten erantzukizunari.

Eskari hau egin die erakundeek Netflix Euskaraz taldeak sinadurara bilketako agirian: «Ikus-entzunezkoen Euskal Kontseilua behar dugu, ikus-entzunezkoen euskal hiztunen eskubideak betetzen direla ziurtatzen duen egiturazko tresna publikoa». Hortxe baitute erakunde horiek euskarari, adierazpen putzu eta hutsaletatik eta kanpaina edulkoratuetatik harago, eguneroko errealitatearen lokatzen, zinezko babesa emateko aukera.

Txintxua Filmsek telesail bat egingo du Netflixentzat, Itziar Ituñorekin

Fikzioaren lau zuzendarietako bat Koldo Almandoz da, eta Patricia Lopez Arnaiz aktoreetako bat

Urtzi Urkizu

Txintxua Films Gipuzkoako ekoiztetxeak telesail bat egingo du Netflix plataformarentzat, gaztelaniaz. *Intimidación* du izena fikzioak, eta istorioaren abiapuntua politikari baten bideo bat izango da. Sexu edukia du bideo horrek; norbaitek prentsari filtratu dio, eta modu horretan abiatu da istorioa. Lau emakumeen gorabeherak jasoko ditu telesailak: bizitza publikoaren eta pribatuaren arteko hari finaren gainean ibiliko dira. Netflixek iragarri duenez, bi galdera hauek planteatuko ditu dramak: «Non daude gizakien intimitatearen mugak? Zer gertatzen da norbere pribatutasuna jende guztiaren ahotan dagoenean?».

Telesailaren pertsonaia protagonista Itziar Ituño jokatu du –oraintxe bertan *La casa de papel*-en bosgarren eta azken denboraldian ari da lanean, Madril-ean. Harekin batera arituko da Patricia Lopez Arnaiz aktore euskalduna ere –Goya saria jaso du *Ane* filmenean egindako lanagatik-. Emakumezko beste pertsonaiak Veronica Echeguik, Emma Suarezek eta Ana Wagenerrek jokatuko dituzte.

Telesailaren sortzaileak Laura Sarmiento eta Veronica Fernandez dira. Zuzendariak, berriz, lau hauek izango dira: Koldo Almandoz –Txintxua Filmsekin zuzendu ditu makina bat film labur,



Itziar Ituño izango da *Intimidación* telesailko aktore protagonista: politikari batena egingo du. LUIS JAUREGALIZO / FOKU

Oreina film luzea eta *Hondarahoak* telesaila-, Jorge Torregrosa, Marta Font eta Ben Gutteridge. Azken horrek zenbait fikzio zuzendu ditu BBC eta Channel4 kateentzat, eta zenbait film labur ere egin ditu.

Txintxua Filmseko iturriek azaldu dute proiektua aurreproduktzioan dagoela. Grabaketaren bueltan emango dituzte xehetasun gehiago. Ekoiztetxeak egiten duen bigarren telesaila litzateke *Intimidación*. Iaz, *Hondarahoak* klau ataleko telesaila ekoiztu zuen ETB1erako; Ondarroan (Bizkaia) girotutako *basque noir* hori

EITBren nahieran zerbitzuan ikus daitezke, baita Filmin ordaineko plataforman ere.

Etxeandia ere, Netflixen

Ez da Itziar Ituño Netflixeko telesail batentzat ari den Bizkaiko aktore bakarra. Asier Etxeandia (Bilbo, 1975) *Erase una vez... pero ya* no telesail musikalean ari da lanean oraintxe bertan –apirilaren Sean hasi zituzten grabaketak-. Fikzio horren zuzendaria Manolo Caro mexikarra da, *La casa de las flores* telesail arrakastuaren sortzailea. Etxeandia da, halaber, *Sky rojo* telesailaren

aktore nagusietako bat. Alex Pinak sortua eta ekoiztua da lan hori, eta aurten bigarren denboraldia egingo dute.

Gainera, Sayaka Producciones ekoiztetxeak –Getxon (Bizkaia) du egoitza nagusia– *El vecino* telesailaren bigarren denboraldia egingo du streaming plataformara horrentzat. Maiatzaren 21ean estreinatuko dituzte atal berriak. Nahikari Ipiña eta Eneko Gutierrez dira, besteak beste, umorezko lan horren ekoizleak. Bilboko Astiberri argitaletxearen izen bereko komikian dago oinarrituta telesaila.

Asier Odriozola, ETB2ko 'Qué me estás contando'-ra

DONOSTIA • Azkeneko urteetan EITBko irratietan aritu da beharrean Asier Odriozola kazetaria –aurretik ETBko albistegietan aurkezle aritu zen–, eta aste honetatik aurrera ETB2ko *Qué me estás contando* programako aurkezleetako bat izango da. Harekin batera, platoko aurkezle lanetan jarraituko du Itziar Alduntzinek ere. ETB2k astelehenean ostiralera ematen du saio hori, 17:30etik 20:05era.

%59,8

ESPAINIAKO KOPAKO FINALAREN IKUSLE KUOTA

Arabian, Bizkaian eta Gipuzkoan, %59,8ko ikusle kuota bereganatu zuen Athleticek eta Bartzelonak lanbategian jokatu zuten Espainiako Kopako finalak. Bi aste lehenago Realak eta Athleticek jokatuak %73,6koa izan zuen: %21,9, ETB1en, eta %51,7, Tele5n.

'Shtandart' ontzia, 'La Fortuna'-ren grabaketetan

PASAIAN • Lehenbizi *Étoile du roy* gerraontzia iritsi zen Pasaiako portura (Gipuzkoa), Alejandro Amenabarren *La Fortuna* telesailko eszena batzuk grabatzeko. Ostiraldean ekin zieten grabaketek, eta gerraontzi horretan ari ziren lanean. Igandean, berriz, *Shtandart* gerraontzia (1703ko Errusiako ontzi baten erreplika) eraman zuten. 1804ko itsas gudu bat birsortu dute Pasaietan, telesailarentzat.